

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023****GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO**

1. BEK 2023-garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak.....	2
2. Esku-hartze humanitarioetarako laguntzak (EHE) .....	4
3. Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzakerakundeei eman beharreko laguntzak (2023).....	6
4. Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen 2023ko deialdia (PRE) .....	8
5. PRO 2023 - Garapenerako lankidetzaproiektuetarako, produkzio-garapenerako proiektuetarako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako eta garapenerako hezkuntzako proiektuetarako laguntzak.....	10
6. Ignacio Ellacuria Saria (2023) .....	12



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**BEK 2023-garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak**

#### 2.- Araua

62/2017 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2023ko apirilaren 4koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko 2023ko lau bekatarako deialdia egiten duena

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Garapenerako Lankidetzaren Profesionalak Espezializatzeko Bekak (BEK 2023) - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko lau bekaren deialdia egitea 2023rako, honako eremu hauetan:

- a) Generoa eta garapena;
- b) Ekintza humanitarioa;
- c) Gizartea eraldatzeko hezkuntza eta komunikazioa;
- d) Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak babestea

Laguntzak 80.000 euroko zuzkidura ekonomikoa du.

Helburu estrategikoa: Eragileak indartzea

Dirulaguntza Programaren helburua: beren jarduera profesionala garapenerako lankidetzaren esparruan egin nahi duten gazteen prestakuntza eta espezializazioa bultzatzea, eta gune estrategiko bat eskaintzea lankidetzako prestakuntza eta espezializazio mailan, hala nola eLankidetzan.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak eraldaketa handiak izan ditu azken urteotan, eta garapenerako lankidetzaren sendo eta estatu mailan erreferente gisa identifikatu da, kalitatearen eta eraginkortasunaren aldeko apustu irmoa eginez. Euskal lankidetzaren eta elkartasunaren eragileak indartzen jarraitzeko, garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko beken deialdiak gazteengan jartzen du arreta, bai eta laneratzen ere, prestakuntza bereizle eta espezializatu bati esker. Ildo horretan, aipatzekoa da beka honek gizartean duen eragina, euskal GGKEetan lankidetzaren eta elkartasuna lan-sektorean sartzea errazten baitu.

2023an, 20.000 euroko 4 beka eman dira, 80.000 euroko guztizko zuzkidurarekin, eta dirulaguntzen programaren aurrekontu-zuzkiduraren % 100 gauzatu da.

Emandako laguntza horien bidez, lau gazte hainbat arlotan prestatzea eta espezializatzea lortu da: generoa eta garapena, ekintza humanitarioa, gizartea eraldatzeko hezkuntza eta komunikazioa, eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak babestea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako espezializazio- eta prestakuntza-beken kopurua	35	34
Emandako espezializazio- eta prestakuntza-beken kopurua	4	4
Espezialitate kopurua	4	4



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Esku-hartze humanitarioetarako laguntzak (EHE)**

#### 2.- Araua

90/2019 DEKRETUA, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen

EBAZPENEA, 2023ko martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak emateko 2023ko deialdia egiten baita

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

**Ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzen 2023ko deialdia (EHE) - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)**

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2023. urterako ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak. Gatazka-testuinguruetan eta bestelako indarkeria-egoeretan krisi humanitarioak jasaten dituzten biztanleak babestea du helburu. Eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bidez identifikatu beharko dira. Afrikako strategiak lehenetsiko dira. Deialdi horrek 4.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidura izan zuen hasieran, eta 3 estrategia erreserbatu zitzaizkion Afrikako kontinenteari.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ekintza humanitarioko 5 estrategia finantzatu ziren, guztira aurkeztutako 10 eskaeretatik 3.916.057,87 euroekin. Horrek esan nahi du aurrekontuaren % 50 onartu zela eta % 98 gauzatu zela. Estrategiak 4 herrialdetan ezartzen ari dira, horietako 3 Ekialde Ertainean (Palestina eta Libano), eta 2 Afrikako kontinentean (Burundi eta Uganda). Beraz, ez zen bete kontinente horretarako deialdiaren ebazpenean jasotako 3 estrategien erreserba, kontinente horretan ez zelako proposamenik egin 50 puntutik gorako puntuazioarekin.

Deialdi honetan onartutako estrategiekin 125.000 pertsona baino gehiagoko biztanleria batera iritsiko da, horietatik % 50 baino gehiago emakumeak, horietako asko Europar Batasunak argitaratutako zerrendaren arabera ahaztutako krisi humanitarioen eraginpean. Barne-desplazaturako pertsonak edo errefuxiatuak dira, beren jatorrizko herrialdeetara itzulitako esparruetan, kokaleku informaletan edo auzoetan bizi direnak, bai eta elkarrekin bizi diren harrera-komunitateetan bizi direnak ere, eta sexu- eta ugalketa-osasuneko, osasun mentaleko eta laguntza psikosozialeko zerbitzuak, lanbide-heziketako eta enplegurako



prestakuntzako zerbitzuak edo Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketen aurreko babesa eskainiko zaizkie.

Xede-biztanleriaren barruan sartzen dira, halaber, erakunde humanitario inplementatzaileak (hainbat prestakuntza jasoko dituzte), bai eta Euskadiko migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzeko erakundeetako teknikariak eta hainbat euskal kolektibo ere, EAEn aurreikusitako informazio-, sentsibilizazio- eta eragin-ekintzetan parte hartuko dutenak.

Hortik dator dirulaguntzen programa honen erabilgarritasuna eta eragin soziala, bai Hegoaldean, bai Euskadin, eta are gehiago gatazkak, gerrak eta gosea sortzen ari den mundu mailako testuinguru batean (Ukraina, Gaza, Sudan, etab.)

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen kopurua	9	10
Emandako ekintza humanitarioko estrategien laguntzen kopurua	5	5
Emandako proiektuak non kokatu diren	-	4
Emandako ekintza humanitarioko esparru-estrategiei dagokienez, Afrikan exekutatzen diren estrategia horien kopurua	3	2



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzakerakundeei eman beharreko laguntzak (2023)**

## 2.- Araua

EBAZPENEA, 2023ko uztailaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, laguntza batzuetarako deialdia egiteko 2023rako. Lankidetzakerakundeentzat dira, antolaketa aldatzeko prozesuak egin ditzaten genero-berdintasunaren alde.

40/2018 DEKRETUA, martxoaren 27koa, zeinaren bidez arautzen baitira genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzakerakundeei eman beharreko laguntzak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzakerakundeei eman beharreko laguntzak (2023) - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lankidetzakerakundeentzako laguntzen deialdia egitea 2023ko ekitaldirako, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko. Laguntza horren zuzkidura ekonomikoa 433.000 eurokoa da, diruz lagundu daitezkeen fase hauetako bakoitzean banatuta:

- a) Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea: 210.000 euro.
- b) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena: 16.000 euro.
- c) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea: 200.000 euro.
- d) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea: 7.000 euro.

Helburu estrategikoa: eragileak indartzea

Dirulaguntzen programaren helburua: lankidetzakerakundeek ekintza, estrategia eta egituretan genero-ikuspegia txertatzea sustatzea.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerranda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Genero-ikuspegia instituzionalizatzea edo mainstreaminga funtsezko estrategia da Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen garapenerako lankidetzaren ikuspegian. Horrela, genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketarako deialdia (GBA) tresna berritzailea da, lankidetzarako euskal erakundeetan estrategia hori bultzatu nahi duena.

2023an, 12 laguntza-emakida aurreikusi ziren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, eta 433.000 euroko zuzkidura globala ezarri zen deialdian, 2023ko funts banagarrien % 0,90. Aurkeztutako 11 eskabide baino ez zirenez, eta 50 puntutik gorako baremazioa egin ondoren, guztiak onartu ziren. Horrela, deialdirako aurrekontua 383.320,99 €-koa izan zen, hau da, hasierako zuzkiduraren % 89.

Bestalde, EAEko 11 erakunde onuradun hasi dira beren erakundeen barruan berrikusten. Erakundearen baitako jarduera horiek egiteko eta pentsatzeko dauden moduak eraldatzea dakarte, erakundearen edozein funtzionamendu-eremutan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, antolaketa-kultura, etab.) gertatzen diren genero-desberdintasunak ezabatzeko.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketarako eskatutako laguntzen kopurua	17	11
Genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketarako emandako laguntzen kopurua	12	11



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen 2023ko deialdia (PRE)**

#### 2.- Araua

90/2019 DEKRETUA, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak emateko 2023ko deialdia egiten baita.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

**Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen 2023ko deialdia (PRE) - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)**

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen deialdia egin zen 2023rako, gatazka-testuinguruetan eta bestelako indarkeria-egoeretan krisi humanitarioak jasaten dituzten biztanleak babesteko. Laguntza horiek eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bidez identifikatzen dira, eta lehentasuna ematen zaie Afrikako kontinentean (AF) egindako proiektuei. Deialdi horrek 4.750.000 euroko aurrekontu-zuzkidura izan zuen hasieran, eta 2.375.000 euroko erreserba Afrikako kontinentearentzat.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023an ekintza humanitarioko proiektuen 32 eskaera aurkeztu ziren deialdira, eta horietatik 27 onartu ziren, 5.291.971,06 euroko zenbatekoarekin. Horrek esan nahi du hasierako aurrekontu-zuzkiduraren % 111 gauzatu zela, hau da, 4.750.000 euro. Hain zuzen ere, 2023ko irailaren 14ko Ebazpenaren bidez, hasieran aurreikusitako zuzkidura ekonomikoaren zenbatekoa gehitu zen: 541.971,06 euro, diruzaintzako gerakinetatik 500.000 euro eta ekintza humanitarioko estrategien modalitatetik esleitu gabeko 41.971,06 euro. Onarpen-maila, beraz, % 84koa izan zen: 32 eskaeretatik 1 kanpoan geratu zen punturik ez zegoelako, 27 onartu ziren, baina horietako bat % 50ean, funtsak agortu zirelako, eta 4 ukatu behar izan ziren arrazoi beragatik.

Proiektuak 17 herrialdetan ezartzen ari dira: 1 Asian (Filipinak), 6 Latinoamerikan (Kolonbia, Mexiko, Guatemala eta Honduras), 7 Ekialde Hurbilean (Palestina, Libano eta Siria) eta 14 Afrikako kontinentean (Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa, Etiopia, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Tanzania, Uganda, Kenya, Hego Sudan, Txad eta Nigeria).





Afrikako 14 proiektu horietarako esleitutako funtsak 2.796.733,98 eurokoak izan ziren, eta, beraz, kontinente horretarako deialdiaren ebazpenean jasotako erreserba gainditu zen, 2.375.000 eurokoa izan baitzen.

Bestalde, proiektu horiekin eragin positiboa izango dute 150.000 pertsona ingururen bizi-baldintzek, eta laguntza ezartzeko tokiko 27 bazkideren gaitasunak indartuko dira; beraz, programa horren gizarte-erabilgarritasuna berretsi baino gehiago egiten da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako ekintza humanitarioko estrategien laguntza-kopurua	29	32
Emandako ekintza humanitarioko estrategien laguntzen kopurua	24	28
Emandako proiektuak non kokatu diren	-	17
Emandako ekintza humanitarioko esparru-estrategiei dagokienez, Afrikan exekutatzen diren estrategia horien kopurua	2.375.000,00 €	2.796.733,98 €
Modalitate honetako laguntzen onuradunak	-	150.000
Baimendutako eskabideen gehieneko esleipena duten erakunde eskatzaileak	-	8
Emandako proiektuak ezarri dituzten tokiko bazkideak	-	27



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**PRO 2023 - Garapenerako lankidetzaproiektuetarako, produkzio-garapeneko proiektuetarako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako eta garapenerako hezkuntzako proiektuetarako laguntzak**

#### 2.- Araua

- 34/2007 Dekretuak, otsailaren 27koak, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen ditu.
- 390/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.
- AGINDUA, 2023ko maiatzaren 9koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, garapenerako lankidetzaproiektuetarako 2023rako laguntzen deialdia iragartzen duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

- Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzak (K1) - 2023 - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)
- Produkzio-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak (K2) - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)
- Garapenerako hezkuntzako proiektuetarako laguntzak (K3) - 2023 - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetzaproiektuak (I. kapitulua), produkzio-garapeneko proiektuak, prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuak (II. kapitulua) eta garapenerako hezkuntzaproiektuak (III. kapitulua) diruz laguntzeko deialdia egitea 2023. urterako. Proiektu horiek 34/2007 Dekretuak arautzen ditu, eta 390/2013 Dekretuak aldatu.

34/2007 Dekretuak garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzak arautzen ditu, pobrezia aurkako borrokan modu esanguratsuan laguntzen duen tresna gisa, Hegoaldeko herrialde pobretuetako prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuz, eta lehentasuna emanaz tokikoari, Estatukoarekiko eta nazioartekoarekiko harremanean, garapenerako lankidetzako irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerranda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren zuzkidura osoa 32.000.000 eurokoa izan zen, hau da, 2023rako funts banagarrien % 69,96. Emaitzek erakusten dute proiektu-programarako diru-zuzkidura handiagoa dela, azkenean deialdirako aurrekontua 34.00.000 eurokoa izan baita. Guztira, 77 proiektu finantzatu dira jasotako 154 eskaeren artean:

- Jasotako 107 proposamenen artean, 53 garapen-lankidetzako proiektu (K1) finantzatu dira.
- Produkzio-garapeneko 4 proiektu (K2) finantzatu dira jasotako 6 eskaeren artean.
- Garapenerako Hezkuntzako 20 laguntza finantzatu dira (K3) jasotako 40 eskaeren artean.

Horrek esan nahi du aurkeztutako proiektuen kopurua % 50,3 onartu dela. Horrela, EAEko 46 erakunde jaso zituzten laguntzak, eta horietako biri erakunde bakoitzak baimendutako gehieneko eskabideak esleitu zitzaizkien, hau da, bost.

Aipatutakoen artean, 22 dira "emakumeak ahalduentzeko" sektorean kokatutako proiektu onuradunak, eta 12 "defendatzaileak babesteko" sektorean onartutakoak.

I. eta II. kapituluetan onartutako eskaerei dagokienez, horiek 22 herrialdetan garatzen ari dira.

Bestalde, Saharaz azpiko Afrikan kokatutako proiektuetarako esleitutako funtsak 6.800.000 eurokoak izan ziren, eta, beraz, kontinente horretarako erreserba errespetatu zen.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Garapenerako lankidetzako proiektuetarako eskatutako laguntzen kopurua	110	107
Garapenerako lankidetzako proiektuetarako emandako laguntzen kopurua	52	53
ekoizpen-garapeneko proiektuetarako eskatutako laguntzen kopurua	8	6
ekoizpen-garapeneko proiektuetarako emandako laguntzen kopurua	4	4
Emandako proiektuak PRO-K1 eta PRO-K2n kokatuta dauden herrialdeak		22
Emandako garapen eta garapen produktiboko proiektuak, Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratutako funtsak	6.400.000	6.800.000
Garapenerako eskatutako hezkuntza-laguntzen kopurua	45	40
Garapenerako Hezkuntzak emandako laguntzen kopurua	21	20
"Emakumeen ahalduentzea" sektorean kokatutako onartutako proiektuen kopurua		22
"Defendatzaileak babesteko" sektorean onartutako proiektuen kopurua		12
Deialdi osoan gutxienez laguntza bat jaso duten erakunde eskatzaileak		46
Baimendutako eskabideen gehieneko esleipena duten erakunde eskatzaileak		2



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ignacio Ellacuria Saria (2023)**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 9koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, garapenerako lankidetzeta-proiektuetarako 2023rako laguntzen deialdia iragartzen duena.

390/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Garapena eta Lankidetzeta Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Ignacio Ellacuria Saria - 2023 - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da garapenerako lankidetzako «Ignacio Ellacuría» sariaren 2023rako deialdia egitea. Sari horren helburua da aitortzea erakundeek, kolektiboek eta norbanakoek egindako ekarpena, bai eta ekimenena ere, herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko borrokan eta pobrezia gairatzeko borrokan, eta saria behar bezala zabaltzea, euskal gizartea sentibilizatzen lagunduz.

Irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek jaso ahal izango dute saria, baldin eta euskal gizartearekin harreman berezia badute eta, beren jardunarekin, ekimenekin eta ibilbidearekin, herrien justiziaren eta garapenaren alde nabarmen laguntzen badute edo lagundu badute.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren zuzkidura osoa 15.500 eurokoa izan zen, hau da, 2023rako funts banagarrien % 0,03a.

Aurkeztutako 2 proposamenetatik 1 aukeratzean, %50a onartu zen. Zehazki, 2023ko Ignacio Ellacuria Saria Mundubat GKE-ak aurkeztutako Seynabou Male Cissé aktibistaren proposamenari eman zitzaion. Madame Cissé Senegal Hegoaldeko Casamanceko gatazkan bakea eta emakumeen eskubideak sustatzen dituen aktibista ezaguna da.

Zentzu horretan, epaimahaiak defendatzaile afrikarraren lana aitortu zuen: "Senegalen gizarte bidezkoago eta bakezaleago bat sortzeko bere konpromisoagatik, eta gatazketan elkarrizketa eta bitartekaritza bakea eraikitzeagatik. Baita emakumeen eskubideen errespetua eta berdintasuna defendatzen duelako,



beti ere horien parte-hartze aktiboaren sustapenarekin”, eta gaineratu zuen, “sari honek euskal gizartea Afrikan ahaztutako krisi eta gatazken inguruan ikusarazten eta kontzientziazten lagunduko du”.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Saria emateko proposatutako pertsona edo erakunde kopurua	5	2
Ignacio Ellacuria saria jaso dutenak	1	1
Komunikabideetan egindako aipamen kopurua	40	44
Saritutako pertsonari edo erakundeari egindako elkarrizketa kopurua	4	16
Sentsibilizazio-bideoen bistaratze kopurua	115	291